




*“Herri jendea artalde  
betiro izan ez dadin,  
ikasi, jardun, eragin...”  
horra Arizmendi irakasle.*

Egilea: EUSEBIO ERKIAGA

# Gizonaren aldia



**D. José María  
Arizmendiarieta**

**Markina 22.4.1915  
Arrasate 29.11.1976**

---

12580



# Gizonaren aldia

P O E M A

D. Jose Maria Arizmendiarieta  
aldantza-zuzia  
ekarri ebanari eskainia


Euskal Biblioteka Labayru



1011621  
LITERATURA / N. 1202



IKASBIDE




---

# Aurkibidea

---

I	Sorlekua.	9
II	Baserriko giroa.	13
III	Ikasten.	17
IV	Agur, basetxe!	21
V	Artea, Gasteiz.	25
VI	Liburu artean.	29
VII	Mundua, gizona, Euskal-zelaia.	33
VIII	Gerratea.	37
IX	Kartzelara.	41
X	Mundukoen azala ta barrua.	45
XI	Abade, eta Arrasatera.	49
XII	Gazteria, lana, mailarik bako gizartea.	53
XIII	Jakituria, gizarteko.	57
XIV	Legeen nagitasuna. Arerioak.	61
XV	Gizona ta auzolana.	65
XVI	Atsedena, Parusian.	69

---



---

# Gora dei

---

**H**amar urte ihesi  
joanak dirala  
gizon baten eginaz  
nik kantu zabala;

Arrasatetik hegan  
uholde bezala  
lanaren, ogiaren  
eskeintza martzala,

Arizmendiren sena  
emonkor, garbala,  
Euskalerrarentzat  
diztira ta itzala.


Haren meza-barriz, ni  
armonio joten;  
geroago Begoñan  
bera gu ezkontzen.

Gizon haren aztarnak  
galdu ez daitezen,  
oroipen-lore txortak  
jarriko nik hemen.





*Don Joxe Maria eta bere bizikleta, oroitzapenarako irudi bat.*





## I. Sorlekua

**M**ende honen hasieran  
hamaboskarren urtean  
Jose Mari jaio zan  
Bizkaiko bazter Barinagan.  
Mendiarte hezean  
basetxeen egonleku,  
ta honeen artean eredu  
agiri agirian Iturbe  
— bere jantzia zuri,  
teilatua gorri —  
aldapatxuari deusala,  
ateraino burdibide.

Basetxeko suetean  
egunez sehaska barria,  
ta hantxe senar-emazteen  
lehenengo kimu lerdan,  
mutikotxu guria.

Berrogei basetxetan  
entzun eben albistea,  
Iturbetik zabalduko zan  
aldaketearan hastea,  
jatorri barrikoak  
maiatzean ugaltzea.

Etxeaz goiti ixil bare  
pinadiaren gerizea,  
punta zorrotzez zulatzen  
zeruaren izarea,

beste zuhatzak baino ilunago  
orratz-orrien jazkerea,  
aldapa ta are lur gizenen  
oraintsuko harrapatzailea;  
sakonean Urkotik  
jaisten dan erreka; toa;  
itsasminak daroatsoz  
bere ur txorta urriak,  
ta ur egarriak errotak  
espatsu ditu jarten,  
baina ura menturaz,  
mentura bila abiatzen.  
Eleizaldeko  
bederatzi etxeek  
gozatsu entzun daroetz  
torreko kanpainsinu  
durundiz beteak,  
landetan zinkurinez  
bedar heze berdeak.

Iturbetik agiri dira  
iparralderuntz  
muino ta mendiska mila;  
honeen bizkarraldean  
itsasoa da susmagarri,  
nahiz-eta ezin ikusi.

Errekastoaz ganera  
ba da han hurrean beste urik,  
ur-jauzi azkorra,



goitik behera  
emakumeen uleen antzera,  
buruko gaixoa arintzeko  
halahalako ur arola:  
horma artean, lotsati,  
bainutegi pospola.

—Negarrik egiten  
ez al daki seinak?

— itandu daroa  
auzoko txikinak.

—Negarrik nork ez,  
maitea?

Zeru azpiango  
sein guztiek dabe  
minantza ta atsekabea,  
mundukoa ez dalako  
zorion betea.

Gehienetan irria dauka  
seinak ahoan, begietan,  
eskutxoak alkarregaz  
jolasten diranetan,  
eta ointxoek ere  
igurtzika jardungo.  
Amaren kanta  
gozo arina entzungo  
eta Jose Mari loak hartuko.

“Aritz adarrean  
kulendrina dantzan,  
esku txuri politean  
lorea.  
Zertara ote da,

hartara ote da,  
galdezka dabil  
jendea.  
Zertara ote da,  
hartara ote da?  
Andre Mari garbiaren  
semea...”

O, seintxu potolo,  
aingerutxoa,  
beioa urrunera  
sorgin gaiztoa.

Ama Tomasaren  
irribarrea.  
Seina lo dagoeno  
sukaldean lapiko  
ta enparauko.

Teilatupeko  
guztientzako  
janaria,  
lanbide egunkaria,  
garbitasuna,  
Tomasaren kezka  
urduria.

Etxekandreak, horraitino,  
ez dau osasuna mukuru;  
baina bera da buru  
—ta senarra seguru—  
sendoa ez baina  
geraka, ekina,  
emakume fina.



Senarrak Jose dau izena,  
etxeko jauna,  
ederra gizona;  
emazte hain maratzaren  
gobernu gozoan  
baretsu doaz joan  
egunak egunen ondoan.

Ezkontza buztarria  
arean eroangarria;  
aita mahairako prest,  
are ferietarako,  
amak mila jardun ditu  
preminatsu ta gogarako.

Lehenengo seinia zelanbait  
amaren kutun izango dan arren,  
sein barriak jaikoko dira  
Barinagako Iturben.

Bigarren seinia ere mutiko,  
Patxi izena jarriko;  
Jose Mari, anaa zaharra,  
erdi harrituta lenengo unean:  
inor dago berea zan  
sehaska apalean.  
Sein barria.  
Orduan geratu ete jakon  
irudituta bere barruan  
edozein gizon dala munduan  
lagun hurkoa,  
ta Jaungoikoa  
alde orotan  
ta aldi oro  
guztien ganetikoa?

Orduan susmatu ete eban  
beti dala zoragarria  
gauetan zeruan  
izarren dirdiz bizia?

Ta harrimenaren jarraipena  
Iturben hirugarren seinia:  
Maria  
ume alai ugaria,  
amaren laguntzaile izateko  
zeruak bidalia;  
geroetan Eibarrera  
joango dan Maritxu,  
esne ta abarrak hara eroan,  
ta etxerakoan  
erosiriko gauzak  
ekarriko ditu.


Eta barriro ere  
sehaska zaharrak  
sein barria,  
Jesus dau izena jarria,  
gerotxoago  
beste hiru umeen jarraian  
ibiliko dan  
tatan urduria,  
zer entzungo  
zer ikusiko  
adi belarri  
ta begia.

Iturbeko mahai zabalak  
lagunez beterik ingurua,  
gizonaren aldiaren zuzpertzalea  
Iturben izan da sortua.






*Baserri gitoan, zuhaizti azpian.*



## II. Baserriko giroa

 ilarrak ilunpetan jo dau  
zidarrezko turuta;  
goizean goizetik kortan  
abelgorriek murrusa,  
Aita Josek besoetarik tranpara  
bedarra luza ta luza,  
umeeK lo nasai egin dagien  
ixilduteko abisa,  
beiek eta txalek  
jatekoaz amesa.  
Murrusa dabe erdilotan  
basetxeko umeeK  
goizeko soinu maketsa.

Atartean txakurrek ere  
egun barriari zaunka;  
jardunak hasierea behar,  
goseak luzamenturik ez dauka.

Goizekoa txirtxir  
sartagin baltzean,  
urdaia edo sistorra  
negar batean,  
laratzean esnea  
topina ilunean.  
Ama taloginen,  
umeak ezpanak miazkatzen,  
aitak mahaian  
bere lekua hartzen.

Bazkaritan sagardaua  
izan ohi zan Iturben  
mahaiko edari,  
horren zalea zan  
geroetan ere  
apaiz Jose Mari.

Sagastiak ondo zaindu beharra  
aitaren ardura zehatza,  
igaliduna dan zuhatza  
etxerako emonkorra.

Irebatea zanean  
pozgiro umeen artean,  
baina uda hasieran areago  
gari ebatea, jotea, garbitzea,  
zoragarrizko jai alaia  
baserritartxoan gogoetan,  
landan bazkari,  
ta merienda,  
auzolana izanik  
basetxe hurkoenekoan  
anaikor etorrera,  
gaur gurean,  
bihar zuenean.  
halantxe txarri hiltean  
odoloste ta abarrak  
basetxerik basetxe doaz,  
ahaleginetan lankide,  
baita atseginetan ere:




Baina udako jaiak  
ogia dakar.  
Ogia,  
eguneroko premina,  
lagaezina,  
Ogia, esangura handiko  
berba sorgina.  
Ogia, munduko janaria.  
Ogia, zerurabide  
ernamina.  
Ogia...  
Jose Marik lehenik  
sumaturiko gaia,  
lotura betirakoaren  
esan-nahia.







*Etxeko lanak.*





### III. Ikasten

**D**omeketan burdibidean behera  
aitaren eskutik arin eleizara  
joaten zan, mutil koskorra zanean;  
ta ume, etxe jagola, ama jardunean.

Andratxo batzuen esku-liburuak  
eleizan ikusten ebazan orduan:  
zer ete agiri orrien ganean  
begira begira halan jardutean?

Aitak erantzuna berehalakoan:  
gizonok berbea daukagu ahoan,  
baina liburuan berbak begietan,  
ikasiko dozu hurren urteetan.

Eta mutikoa harrituta dago,  
andren ardureak dihardu gozaro.  
Abadea altaran ixilik danean  
irakurleak hor letrak begipean.

Mezatan sermoia abadeak azkar,  
liburuak atsen, geldit laga behar.  
Jose Marik hartu liburu bat eta  
orriak irudiz ta letraz beteta.

Sermoia euskeraz izaten zalako  
mutilak ulertu gitxi edo asko;  
baina kantuzkoa esaldi arrotza,  
abade jaun horrek berbeta bikotxa.

Eleizako argi eta irudiak  
etxe bakarreko gauza nabariak.  
“Jaunaren etxea, ai! —amak dinotso—,  
horrexegaitik da hain eder, hain oso.

Aparteko etxe ta torre jagia  
pertonak bakarrik dabe han tokia.  
Inor ez da bizi, ez da logelarik;  
egunez ostera, atek zabalik.”

Eskola maisurik ez da baserrian,  
eskola aroko lana sakristian;  
hor da Mariano Kareaga arduraz  
umeei letrak irakatsi guraz.

Bestelakoa da berbeta modua,  
nekea izango da lenengo negua;  
letrak bakan eta berbak bakanago  
amaren berbeta argia gurago.

Etxe mendi... koa, mendiko etxea...  
atzekoz aurrera da gaztelerea.  
“nitzat” hain erreza, “tzat ni” bai trabesa,  
euskerea gozo, erderea geza.

Baina argibidea ba dator baratxe,  
ikasle zuhur da bihurtu oraintxe.  
Eta geroago eskola barria  
ikastoki zabal, eroso, argia.



Ta emakumea irakasle barri  
Doña Patro Uranga egoki nabari;  
Bizkaiko Aldundi erneari esker  
Barinaga gero eskoladu bazter.

Eskola barrian ekitalde luze,  
hor beteko ditu, bai, hamabi urte;  
bitarte horretan torredun Etxean  
eleizgiro kutsuz altara oinean.

Altaran abade meza-emoilea  
Jose Mari sarri sakristau-kumea,  
Confiteor luze xamarra ikasirik  
erantzun laburrek ez eragozpenik.

Doinutsu, errezto abadeak latin  
mutikoa erne hiru hizkuntzekin,  
etxean batera, eskolan bestera,  
joango ete da latin ikastera?

Jai egunez amak atsegin ixila,  
meza erazoten zentzunez mutila;  
seme bat abade izatea, aurki,  
—amak berekautan— ez kentzen burutik.


Joango ete da Seminarioa?  
Amaren otoia barrutik ahora.  
Senideek, barriz, ezetz asmo horri;  
amak, horraitino, eutsi bereari.

Trumonaizeetaz semea babestu,  
senide eritziak gogor ezereztu;  
Jose Marik ba dau mutiko laguna,  
biontzat, menturaz, helduko eguna.

Harako “Introibo ad altare Dei”  
entzun baizen laster mutikoek segi,  
erantzuna “Ad Deum quilaetificat...”  
ahots garbi zoliz bateratsu ta bat.


Jose Mari eta Jose Gandeaga  
kide izatea gero be ezin laga,  
abadetzarako biak irrikiten,  
adorez hasiak bidebarri ginen.







*Baserri zaharra.*



## IV. Agur, basetxe!

**A**smo guragarria  
hor dago ernamin,  
amak gura ebana  
semeak susma arin,  
barruan sustraitua  
bazterrera ezin,  
basetxetik, ostera,  
beharko aldegin.

Lautada muiño eta  
mendisken tontorrak  
Jose Marik sarritan  
zapaldutakoak,  
askatasun ikurtzat  
euki izandakoak  
hantxe laga beharra  
eskatzen aduak.

Auzo basoetako  
txori kantariak  
errekako eskailu  
eta arrankariak,  
txikitako zokondo  
hain maitagarriak  
bere hartan lagako  
ixilik guztiak.

Berez eukan doea  
lumeaz jarduten,  
irudi txit politik  
zituan egiten,  
haren kuadernoetan  
marraen azterren,  
zelanbaiteko jitek  
ba eukan edermen.

Gizonak beti dauka  
jantzi preminea,  
mutilak horretan be  
saiatu gurea,  
soinekoa paperez  
errez da egitea  
sortzapenaren sena  
osoro berea.


Seminario txikiz  
han dago Artea,  
sartu baino lehen baina  
nun azterketea?  
Markinan egin dabe,  
han dago abadea  
Onaindia, Domingo  
puntu-jartzailea.



Hamabi urtekoak  
harako lagun bi  
Jose Gandeaga bat  
eta Jose Mari;  
ikasle arrioa  
arduratsu jarri,  
oinetako ta jantzi  
amak bakotxari.


Agur, basetxe, eta  
agur maiorazgo!,  
Jose Mariren ordez  
Patxi da izango,  
estimau dan maileak  
ba dau arretondo,  
ordeazko saria  
Jainkoak emongo.







*Seminarioan bere kideekin.*





## V. Artea, Gasteiz

**G**aztelu eta Elejabeiti  
Arratiako lurrean,  
etxe luzea, ez hain jagia  
dauke begien aurrean,  
leiho ugari horma zurian  
ateak aurre ta atzean,  
errekastoa kantari doa  
estua dan zubipean.

Futbol jokoak eroso samar  
eskatzen dauan zelaia  
etxe ostean ikusi dabe  
eta alboan frontoia;  
uste eban baino politagoa  
etxe argi eta alaia,  
hor ikasketan ta kiroletan  
aukeran dabe nun saia.

Logela txukun, ikasteleku,  
eleiza eta areto,  
jantoki zabal, zerbitzu ugari  
egoki eta ederto;  
zelaiez goitik mendi aldapa  
lurrak bedarrez jazteko,  
bazter batean iturritxoa,  
“Saraspekoa” eduko.

Iturbe aldean laga eban  
Saraspeko iturritxoa,  
modu bereziz begiztatzen dau

iturburu zulokoa;  
inguruetan zuhatz jagiak  
egunez ba da beroa,  
zubi aurrean bide zabala  
ibilera handi bakoa.  
Bizkaiko seme abadageiak  
Artea honetan toki,  
mutil giputzek Saturraranen  
itsasondoan egoki;  
hango irakasle ta ikasleak  
maila fineko irudi,  
ta Arteako Seminarioa  
gitxiespenez eretxi.

Irakaspena halan be artez  
eta estua mutilentzat,  
orduko eleizgiro lehorrak  
ba eban, bai, batasun bat;  
heziketa latz araupetua  
munduan ta mundutik at,  
abade barik fraile izateko  
inork bai jo egokitza.

Jose Mariak ba dau kezkarik,  
Munduaz aparte bizi?  
Mugaz kanpoan jazoten dana  
behar genduke ikasi;  
zetan gabiltzaz lehenetakoa  
irakurri ta idatzi?  
Bapo, mutillak; udaldietan  
mundua aztertzeke bizi.



Seminario barruan bertan  
lagun taldetxoa ginan,  
munduko azi-orrazi eta  
zirkinen ingurubiran  
ikasmin handiz erne genbiltzan,  
atzereak ez gura izan,  
oporraldian ez ginan nagi  
gizartearen jakintzan”.

Hirugarrenez udaldia ta  
etxeratzeko be, pozik;  
abadegeiak aldiz joanik  
Arteako etxea hutsik;  
bitarte horretan garbitu, ta  
bazterrak egokiturik  
udaostean mutiko saila  
barruratzeko gerturik.

Udako egun gozatsuetan  
edozetarako asti,  
Arizmendiren burutapenak  
errez jaio eta hazi;  
mutiko lagun eta auzoak  
zelan dabiltzan ikusi,  
munduko barri jakin gurarik  
egunkariak erosi.

Mendiko zidor aukeratuak  
ibilteko leku ase,  
Markina, Etxebarri, Arrate  
bisita, besteak beste;  
horraitino be, bide aldiak  
luzeak badira gose,

betiro oinez ez ibilteko  
bizikletan mutil gazte.

Bide luzeak zelanik moztu  
mutillak horra asmatu,  
Iruzubieta heldumuga,  
ta hurrengoan Ondarru;  
Elgoibar, Ermu, Eibarreraino  
txango laburrak luzatu,  
kiroletan dan atseginena  
burpil bikoia gertatu.

Burpil bikoia bidelaguntzat  
orduana ta geroetan,  
zaratarik ez kutsadurarik  
ez eban nahi bideetan;  
bizikletari asperrezina  
hara horrako osteretan  
azkartze griñea gaztetarik  
bere asmoetan eban.

Hamasei urte bete zituan,  
bete Arteako egunak,  
ele-antze boskarren aroan  
ez-ezagunak lagunak;  
arean bere irakasleak  
gizon eredu bakanak,  
alde itzela baserritik at  
uri haundira joanak.

Gasteizeko Seminario  
Nagusi, harro ta barri,  
urte bete lehenago eben



martxa egokian jarri;  
Arabako lautadan Gasteiz,  
han urruntxuago Ali,  
hezkuntza zahar ta latz samarra,  
baina gaiak ernagarri.

Gizarte giro aldakorrerantz  
aldiko jente urduria,  
giza ideiek kanpo-hormen gain  
barrurantz bide edegia;  
Arizmendik adimen leihoa  
zabalik eukan jarria,  
ikusi, irakurri ta entzuna  
jakiturizko bazkaria.


Sei hilabete lehenago han  
Seminario barria,  
Españiako errege bera  
haraxe zan etorria;  
uste ez uste, asaldatu zan  
bindilibanda, herria,  
Cartagenatik itsasoz ihes,  
laga errege aulkia.

Askoren ustez batuak ziran  
Eleizea ta Errege,  
erleginoiak ixilik gertu  
gauzak eukitsuen alde,  
ideia hori buruan eukan  
langileriaren jabe  
matxinada giroa gertatuz  
asko matxinada-zale.


Erailetak hor hemen ugari  
ta komentuei su emon,  
lehenagoko antzera gogor  
jardun nahi eta egon  
langileek errepublikea  
garaitza eta zorion,  
askatasuna zaindu beharra  
eskatzten adiskide on.

Abadegeiek lehenago bake  
zuria iluntzen dakuste,  
halako haizez aldakuntzarik  
eitekeanik nork uste?  
Batzuk etxean gelditu arren,  
—giroan bildur-nahaste—  
“Iturbe”-k eta beste batzuek  
zuzperturik bihotz gazte.





*Formakuntzarako garaiak dira.*



## VI. Liburu artean

**L**nguruetan kezka ta larri  
bai, burgesia zaindu nahi,  
irakurle onen esanetan  
batzuk irakasle garai;  
esaterako Barandiaran,  
berak darabil mila gai,  
euskal arloan neofitoek  
jo Lekuonaren jarrai.

Tarte bitartean Arizmendik  
maite dau Sagararioa,  
igarri barrik bakartadera  
ernagarri bila doa;  
maila handiko edu bi ditu  
lehenengo Jaungoikoa,  
haren hurrena gizona eta  
gizartearen giroa.

Munduko itsaso hasarretua  
bere ontzia jagoten,  
Jose Mariren ahaleginak  
ez dau inoiz izan eten,  
bidea argi ikusi eban  
batu indar eta kemen,  
berba gitxi eta eurak onak;  
ixiltasuna be, ozen.

Barruko giro haretan ziran  
sortu Kardaberaztarrak,  
eta sortu be, euskereari  
zintzo lagundu beharrak;

Auñemendiko alde bietan  
euskal azterren zaharrak  
iraun egien, jo eta keia  
gazteen saio suarrak.

Lanarteko mundua ekusan  
mundualdiko jardun lez,  
alperreteria inorentzat be  
onurarik inoiz be ez;  
behartsua zan baserria, ta  
egunero behar nekez,  
preminak aukeran gainduteko  
izerdirik ukatu ez.

Hortik ba, Jose Marik joera  
aspaldiko lanetara,  
Eleiz-liburu lodi trinkoak  
irakurtean gogara,  
abesti zahar beneragarri,  
eskubideen jarrera,  
asmo guztiok harek buruan  
ta, nondik joko aurrera.


Irakasleen artean goren  
don Joxe Miel jatorra,  
arimazaina dan hainbatean  
Herrian dauka altxorra,  
lehenagoko gauzak aztertu  
harpeetan lan gogorra,  
neke guztiak uxatzen ditu  
dana daroa arloa.



Aho gozatsuz esanik eban  
Barandiarani buruz:  
ikasleetaz ihesi inoiz ez,  
alkarrizketara amurruz;  
irakasleak ikasleekin  
ekin, adiskide eduz,  
neurri handiko gizon txikiak  
tairik ez hitzez, ez orduz.


Bai klasean ta bai jolasean  
irakaslea adiskide,  
barriketaldi gozoenetan  
bai jankide zanean be;  
lotsati zana zuzperten eban,  
edozeini emon bide:  
“gizona ume besterik ez da,  
hor... berrogei urterarte.”







*Gasteiz, Eskola Soziala, bere lehen kezka piztuz.*





## VII. Mundua, gizona, Euskal-zelaia

**E**lederraren zelai gozoan  
sartu zan buruz aurrera;  
Euskalerrria, herri-gizona  
haren buruak aukera;  
tresna egokiz jardungo eban  
—mendebaldeko euskera—  
erro zaharrak mintegi barri  
ahalegina hark lera.

Euskalerrrian  
euskeraz  
atseginez  
eta eraz;  
eleizgizonen  
hizkuntzea  
herriarena  
beti, beraz.

Herri-jakintza  
letra sailean  
asele, kanta  
eta ipuin,  
antxinakoen  
asmo ta amesa  
barriro giar  
ta barne-muin.  
Ta Kardaberaz-  
tarren taldea

sorturik, hantxe  
don Manuel,  
gazte ederrak  
lan bigarrena  
euren gain gogoz  
hartzeko prest.

Gauza ona jakon  
elederra bera  
ez egoan horretara  
soil-soilik, ostera;  
Arizmendik  
gizonaz beti  
amairik bako  
kezka ta joera.

“Horraitino,  
gizon soila  
ez, bakarreko



elementu;  
ingurubiran  
kideak ditu,  
ta emakumea  
lehen mendu.

Gizon ezkongak  
mundualdian  
bide erdian  
besterik ez,  
eta gizon-erdi  
geratu ez dadin  
emea behar  
grinaz ta legez.

Argizagi  
usain larregi  
izpirituak  
ez dau behar,  
monjen kantuak  
ez dira nahiko,  
gizartean bai  
arazo lar.

Herrigizon laua  
ez da jakituna,  
bitartekoa bai  
azkarrago dana,  
azkarrago honek  
besteak menpean,  
noizarte egin behar  
jauntxoan esana?

Diruduna ez soilik  
jauntxo mailako,

langile artean be  
hainbat halako;  
Gizarte oboan  
ondasuna bedi,  
kultura ta jakintza  
ta zintzoen argi.

Ezjakina zelanbait  
jakitun jarteko  
ikastea beti be  
asmo bitarteko;  
otoi eta kantak  
ez dira nahiko,  
halan be kantu ona  
ez nik baztertuko.

“Erdi klandestin lana  
Seminarioan,  
hango hormetaz kanpo  
geroa gogoan.  
Mixino-lan barria  
herri lauan ausaz,  
sakristian egonez  
jango gaitu hautsak.”

Gizonak eleizeagan  
sinestea epel,  
gure abade gazteak  
ezin izan txepel;  
gizarteko burrukak  
kolore bitako,  
dirudunen mailea  
langileen aurkako?



Kristau bidea hor  
hasarrez besteko,  
gizonak alkarregaz  
dira konpontzeko;  
bakotxaren itzala  
aintzat noiz hartuko?  
Biloizik egin gara  
guztiok munduko.

Ni izatea ez da  
izate osoa,  
gizartea gizonak  
berezko oboa;  
bakotxa, bakotxa da,  
baina ez mamoa,  
preminazkoa edonoiz  
lagun albokoa.

Gizona patari  
ezin inoiz izan,  
halan be aspaldian  
horra nun gabiltzan;  
guztientzako bebil  
ondasuna dantzan,  
guztiok parte hartu  
behar geunke saltsan.

“Saraspeko iturritxua.  
Barruko beroak eta kanpotiko  
sargori kiskalgarri oneik erreta  
iregana nayakark egarri miñak.

Bein betiko ase nindualakotan  
nintzuan  
eta len baño egarriago beriala.  
I ez az ustuko ta,  
ekatzak beste apur bat!  
Iturritxu!  
Orain bayakiat  
zergaitik ase ezin neikian;  
edanago  
eta egarri aundiagoa  
zergaitik sortzen  
daustaan be bai.


Nuan Jainkoagana,  
onetxen urak  
ito daikez ene egarri gartsuak eta”.

(1936 Etailaren 31-an)





*Don Jose Maria gudari jantzita, guda garaian.*



## VIII. Gerratea

**B**izkai-Gipuzkoetan inork uste ez eban  
hogetamaseikoan zer sor eitekean.  
Arabian ba ekien, are Nafarroan;  
euskaldunik gehienak barriz, losorroan.

Ekatzaren antzera ez zan bapateko,  
giro ez-atsegina errez gaiztotuko;  
errepublika motzak etsaiak orduko,  
gero jazoko zana, zeinek sinestuko?

Nafarroan lehenik, matxinoek garai,  
errepublika aurka gerrate latza nahi;  
sinismenaren alde reketeak ernai,  
aberri haundirako euren Erregegai.

Gurasoek antxina burrukan hasiak  
beste batzuk eukezan euren maleziak,  
giro zaharra zala zinoan argiak,  
halan be gerrateak gatx izugarriak.

Ezpatadunek sarri agintari mena,  
ezkutatu ezina euren ahalmena,  
Afrikatiko jende azal baltzerana  
kristinauen kaltetan eurrez ekarrena.

Ingurugiro iluna Madrile aldean,  
diputaduak kezkaz ta ez-jakinean;  
giroa nonbaitetik urra eitekean  
baina argitasunik ez askok anartean.

Zortzi egun lehenago Santiyao baino  
zerugana ozkarbi, ez arean, laino;  
hegazkinak irritsez urrunetaraino,  
ezpatadunen gertu kuartel eta kaino.

Nafarroan, Araban matxinoak gora,  
Estaduko lurretan odola zan lora;  
alkar-hil behar hori zabal itsasora,  
zeruetan ebilen heriotz aizkora.

Bizkaira burrukea Araba aldetik;  
Gipuzkoara barriz, ai, Nafarroatik.  
Bildurra, preminea alde askotatik,  
euskaldun asko larri, arriskuz beterik.

Arriskua, bildurra alde bietan zan,  
gorrotozko odolez errekek etorzan,  
adimenen argia ilundu lanbrotzan,  
Jaunaren errukia, hori be, zalantzan.

Batzuk gorri ta gordin, besteak faszista,  
lurreratu ziran bai trumoi ta tximista;  
bidertzean gorpuak, ohetik jatsita;  
egunsentiz, goiztarra, herio bisita.

Lehen asteetako behar modu larri,  
hobi barrientzako ez kare ez harri;  
gizonaren grinea antzekoa beti,  
bata hiltzaile dala... ta besteak segi.



Gerratea mendian atondu aurrean  
gizakien odola etxe ta kalean;  
geroago kartzelen burdinen artean,  
ontzian, hilerrian eta kuartelean.

Mendietara ziran harik lasterrean,  
matxinoek itsasoz nagusi bidean,  
hegazkinen bitartez halatsu aidean,  
lurretan be, aurreruntz, erakusmenean.

Gipuzkoan barrurantz matxinoak prestu,  
Tolosa galdu zan ta, Irun ere estu;  
mugalterroan jarrai, Donostia arrisku;  
Ondarruraino laster gudaoinek txistu.

Elgeta eta Eibar eta Otxandio,  
Bizkailur mugarriak, besteak adio.  
Hiru hilabetea ha bai desafio!  
Hegazkinik ez badok, hik zeri akio?

Bildu ziran gizonak, taldeak alkartu,  
ta gizarte zaharra zelanbaiten zaindu;  
askorentzat buztarri barria eratu,  
matxinoen oldarra ezin zan geratu.

Zalantza aldian nekez buru hautatzea,  
gerrate preminetan beharra sartzea;  
jaurri guran alkartu, geldi nahastea,  
Gernikan agintari barriak hastea.

Gazteek soldautzara udazkenez deia,  
gura bako gerrara, nekatsu den lehia,  
kuarteletara mutil taldeek abia,  
Arizmendi Bilbora, aduak jaurtia.

Nonbaitera jo behar burua agertzeko,  
hainbat ziran gorriak ta gorri-ertzeko.  
Askatasuna eta fedea, etxeko;  
Euzko Gudarostean mutil azkeneko.

Azkenekoarena haren maila ez izan,  
tiroka jarduteko traba eban bistan;  
lumen preminaz ere giza-errebistan,  
bertatik sartu eben han, kazetaritzan.

Euskalerrian inoiz ikusi ez zana:  
egunkari azkarra, ta euskeraz dana,  
hogetamazazpiko ate ta udalena  
lau-bost gaztek euskeraz loratu ebena.

Eguzkidun orduak gitxi ez zirala  
gauari be ostuten, kuadrila mazala;  
horretara "EGUNA" goizean kalera,  
gizartera hainbatean guda-oinetara.

Bizkai guda-oinetan mugak barrurago,  
jentea ugarituz, lurra medarrago,  
tresnen preminaz baina gosez hainbat aho,  
itsaso ta zeruan ba zan zigor-aro.

Mesedeko albistak murriz paperetan,  
arerioek gogor alde guztietan,  
burdina, zementua behar lubanetan,  
traidorerik izan zan eusko lerroetan.

Hutsitu egin ziran herri ta baserri,  
heriotzaren bildur lagunak ihesi;  
agure, atso, ume eta abelgorri,  
exodorik baltzena bideek ikusi.



Euskalerriko bide ta bidezidorrak  
iturritz beteriko aldatz ta bazterrak,  
burdinazko euriak, eta are txingorrak,  
ezogarrien orde z zeruko su-garrak.

Abade izateko sortu zan bihotzak  
halako atsekabe, minsorrak, mingotsak,  
bakearen semeek gertu idaztortzak  
baina gizentzen arma-saltzaileen poltsak.

Apiril eder haren azken alderantza  
basetxeari agur latza egin deutsa.  
Bilborantz etorrela Gernikan aldantza,  
aleman hegazkinek bonbazko triskantza.

Bilbon barri baltz hori adierazo eban,  
lorriñaren kaltea zehatz ezin esan;  
uririk gehiengan horma hutsak ketan,  
hilak horma artean eta kaleetan.

Agur Intxorta eta agur, Kalamua!  
matxinoen uiola Bilborantza doa,  
hegazkinez nagusi, kainoak mordoa...  
errepublikariek zori baltz gaiztoa.

Gorbea ta Bizkargi hondatuko errez,  
tropa, moro, aleman eta italiarrez  
atonduriko talde horretzek indarrez  
zapalduko Bizkaia. Mundua, lotsor... ez.

Agur Arratia ta agur, Txorierri!  
orduante estua Bizkaiaren gerri,  
ontzietan batzuek ihesa igarri,  
matxinoen menpean milaka gudari.

Hilek gehiagorik ez alkar ikusiko,  
kartzeletan gizonak laster kokoriko,  
osasanaz ardura ez horren gutziko,  
heriotza epaiak arrisku ugarisko.

Agur Artxanda eta agur, Pagasarri,  
matxinoentzat Bilbo kartzela nagusi,  
gorrizko ta horizko banderak garraixi,  
askoren minak barriz, zart! ixilarazi.

Goizaldeko danbadak zubi apurtzaile,  
ahalegin guztiak ai! hutsaren pare;  
Ibaizabal osoa menperatu dabe,  
eta bildurrez bete etxe eta kale.

Preso ez dagozanak txori bakartiak,  
zeinek harrapatuko gazte izutiak;  
Arizmendiren senak distira argiak,  
Bilbotik ihestera haren maliziak.



## IX. Kartzelara

**M**atxinoek Bilbo euren menpe  
jarri eben  
bagilaren erdi aldean;  
Arizmendi gudari gaztea  
kezkaz urduri egoan,  
kazetari ta idazle izatea  
auzi latzaren menpe jartea  
benetan arriskutsu zanean.  
Ordu batzuk esturaz  
iragan ostean  
biderik bide barik  
mendirik mendi joan zan  
Bilbotik ihesi  
Frantziarako martxan.  
Bizkaiko lur medarrak laga  
ta Gipuzkoako Lazkaoraino  
heldu zan, han arnasea hartuz.  
Baina norbaiten aholkuz  
Bilbora bihurtzea zala  
egokien, ziurren.  
Eta hain egunetan eta ordutan  
Bizkaiko Caja Reclutan  
gizon harek Jose Mariri  
zintzoro itxarongo  
ta zuribidea emongo.  
Lazkaotik barrero Iturbera,  
hainbat astetan ikusi ez eban etxera,  
senideak besarkatu  
ta arimea zelانبait atsedentzera.  
Baina Bilborako prest,


Markinan taxi baten jabea  
izan eban tratugilea.  
Beribil arin horretan  
Arizmendi kezkaz ta esturetán,  
baina itxaropen apurra  
bihotzaren tolesetan.  
Zenbat etxetan negarra  
ganezka ez eben,  
aberria maitatzea  
pekatu zalako hemen!  
—Taxi arinaren ibiltari azkorra,  
eroan nagizu sekretuan Bilbora...  
Uri handira heldu eta  
Caja Reclutara baino lehen  
ezagunen ostatuan sartu-urten,  
Heros kaleko etxe baten.  
Ordu jakinaren aurretik  
Arizmendi ondo jantzia  
adiskide minagana,  
Bankuetxe baten  
alkarrikuste sentigarria.  
Kalerako ate errotaria  
brastadan edegia:  
neskatila liraina agertu  
ta lagun biekana  
larri ta arnas-estu:  
—Jose Mari,  
etxera heldubarri  
polizi bi  
zure galde.







*Derrotarekin batera, gartzela.*



## IX. Kartzelara

**M**atxinoek Bilbo euren menpe  
jarri eben  
bagilaren erdi aldean;  
Arizmendi gudari gaztea  
kezkaz urduri egoan,  
kazetari ta idazle izatea  
auzi latzaren menpe jartea  
benetan arriskutsu zanean.  
Ordu batzuk esturaz  
iragan ostein  
biderik bide barik  
mendirik mendi joan zan  
Bilbotik ihesi  
Frantziarako martxan.  
Bizkaiko lur medarrak laga  
ta Gipuzkoako Lazkaoraino  
heldu zan, han arnasea hartuz.  
Baina norbaiten aholkuz  
Bilbora bihurtzea zala  
egokien, ziurren.  
Eta hain egunetan eta ordutan  
Bizkaiko Caja Reclutan  
gizon harek Jose Mariri  
zintzoro itxarongo  
ta zuribidea emongo.  
Lazkaotik barriro Iturbera,  
hainbat astetan ikusi ez eban etxera,  
senideak besarkatu  
ta arimea zelanbait atsedentzera.  
Baina Bilborako prest,

Markinan taxi baten jabea  
izan eban tratugilea.  
Beribil arin horretan  
Arizmendi kezkaz ta esturetan,  
baina itxaropen apurra  
bihotzaren tolesetan.  
Zenbat etxetan negarra  
ganezka ez eben,  
aberria maitatzea  
pekatu zalako hemen!  
—Taxi arinaren ibiltari azkorra,  
eroan nagizu sekretuan Bilbora...  
Uri handira heldu eta  
Caja Reclutara baino lehen  
ezagunen ostatuan sartu-urten,  
Heros kaleko etxe baten.  
Ordu jakinaren aurretik  
Arizmendi ondo jantzia  
adiskide minagana,  
Bankuetxe baten  
alkarrikuste sentigarria.  
Kalerako ate errotaria  
brastadan edegia:  
neskatila liraina agertu  
ta lagun biekana  
larri ta arnas-estu:  
—Jose Mari,  
etxera heldubarri  
polizi bi  
zure galde.



Hirurak alkarri begira,  
begiak ilun, eztarriak lehor.  
—Saldukeria da hor!...

Ai, Hila, Hila,  
taxijabe purtzila!  
Hi izan haiz  
etoi zirtzila,  
hi saldukeriko  
azpizapo biribila.  
Ai, Hila, Hila,  
karlista muskila!  
diruzale baltz,  
andraketaria hire zakila...

Komisaritegira Arizmendi sartu,  
salakuntza bitartez han beharko lotu;  
Larrinagara laster, nunbait gaixto edu,  
“Iturbe”-ko semea halan... nork sinistu?

Atxuritik gorantza hara Zabalbide,  
Larrinaga izenez han kartzela-etxe,  
barrura ate zabal, kanpora ez beste,  
euskaldunak piloan estu morroilope.

Han ortziko argirik aurkitutea gaitz,  
patioan pitina urri eta mergatz;  
atxilotuarentzat hormatea hain latz,  
heriotza susmurra ziztakor, ez baratz.

“Unibersidadea” eritxoen irriz  
hango karrera baltzak zerraldozko jantziz,  
askatasun obena lepoan ezarritz,  
Deriora bidea zabal egunsentiz.

Gudari izatea oker ta obena,  
eta albistari, barriz, labako txerrena,  
errudunen kataiko aurre ta azkena  
lagun ugarik eban bildurrezko pena.

Azalpenak hemendik, salakuntzak hortik  
Auditorian lanik latzena gogotik,  
matxinoek legea azpikoa goitik.  
Zuzena hondatu zan, ez jakin zergaitik.

Kartzela borreroen artean zitala,  
harako “Bergaretxe” ez zan, ez makala;  
taketa egunero eskuan ebala  
jo saihets estua ta jo bizkar zabala.

Derion horma zaharra bigarren aldiko!  
Lenengokoen sailaz guztiz ganetiko;  
heriotz-epaituak gauez belauniko  
azken gauan agurka, agurka betiko.

Zein dan errukarria kaiolako txori!  
areago kartzelan dagoen opari;  
Jose Marik mezua aitari ta amari,  
bildurrak jaurti eta ez ibili nagi.

Urietan gelditzen ete gizon onik  
larregikeriari trabak jarri nahirik?  
Paperen batzuk lortu abade eskutik  
Auditoriara azkar Bilbora bidetik.

Gogorra da beti be galtzaile buztarri,  
buztarri ta zigorra menperatuari;  
salatarien hitzei Jose Mari adi  
auzi egun baltzean bihozpea larri.



Pekatuaren eske, sustarraren bila  
militarrak epaiez menpetu zibila,  
giza-askatasunari uko biribila,  
herrikoen paperak eskari umila.

Kazetari ete zan, ala gudaria,  
egunkariko idazle ta albistaria?  
Itaune bakar horren ondoz sententzia,  
salatari epaile, zuhur belarria.

– Hileroko soldata nundik lortzen neban?  
(Zalantzaz, ixilune...). Gobernuko arkan.  
Ixila... Garikano Goñi han egoan  
salatari jardunez, atz-egin buruan.

Auzitegia laga ta barriri gora  
Larrinagan izentau eutsoen txokora.  
Presokideak galdez, esturaz, ondora,  
irudi zuribaltzak Joserren gogora.

Erantzun bakarraren talisman sorgina  
txarrerako/onerako epaileen grina;  
Euskalerrian zabal oinaze ez arina,  
bakotxak jasan behar norberaren mina.

Jose Mariren buru eta barrunbean  
irudi lanbrotsua egunez, gauean;  
heriotz-epai soinu, presoan artean...  
Ta Arizmendi kalera, hurrengo hilean.

Harrigarri gerta arren, obenik bagea  
aurkitu eben, ausaz, baserri semea;  
arnasaz behingoan etxera bidea,  
matxinoen soldautzan bigarren partea.


Burgoserako deia etxean dau hartu.  
Soldadu jantzi eben, artillero gertu,  
kuarteleko ofizinaz behar arduratu:  
bere "fitxa" makurraz hantxe zan jabetu.

Eleiza-ikasketaz beti kezkatua  
zuhurkiro zainduko eguna, ordua,  
jauretxe maitaleak noizbait onartua,  
bere goi-bideari zintzoro lotua.





*Don Jose Maria dantzari talde batekin.*



---

## X. Mundukoen azala ta barrua

---

**S**aizeak hara horra darabilen  
Orbelaren antzera  
Arizmendik bere burua  
besteen menpera  
halabeharrezko indarren bultzadaz  
azpiratzeari ezin ezelan be  
egoki eritxi,  
ez zalako, arean be,  
artezeko aukera.

Inork ikusten ez zituan  
oldarren eraginez  
gizonaldrak dantzatu beharra,  
bai amaren semeen sirats kaxkarra!  
Makalak ahalmen urri ebana  
argiro egoana izan arren,  
goragoko uhalen jabe ta erdijabe  
goianekoa da; eta behekoak  
jopu epotxen antzera jardutea...  
Estaduko agintari,  
Eleizako maila goiko,  
bizimodu batez zertu;  
ta arduratu, zertarako?

Zuzena ta okerra  
alkarregandik bereizteko  
errez nagitua da gizona;  
askan zer jana dagoeno,  
buruarentzat ixileko egona.

Abadegei jarraituko,  
eta soldadutzan bertan be  
ikasten jardutea,  
ta urruneko  
edo bakarreko ikasketak be  
balio izatea:  
horren alde, horren bila  
“Iturbe”-ko mutila.

Eragozpenak beti lur aitorra,  
halatsu dira sasi ta larra,  
zidor bihurtu, ongarrri  
daitekezan bide zabalak;  
barruan egia bilatu arren  
gizonak nahiago azala,  
ikusgarri dana,  
ta zokondoan gorde  
benetako sentimena.

Liburu mordo txikia  
lehengo ikasketen jarraikoa;  
horraitino munduko eskolan  
gingo ikastaro gordinagoa;  
bakearen bila hainbat barriketa,  
hainbat irudikeri ta urruma,  
azalkeria nagusi  
mendeetarik hona.

Ezina izango abade eskolak  
bakarrik egitea,



ikaskide lagunen preminea  
ta are, eleiz irakaslea.  
Jose Marirentzako  
oztopoak berlotzea.

Ez eban etsiko Arizmendik;  
hortik ez bada, hemendik,  
irakasle jatorren bat bilatuko,  
ta horrelan izango arnas hurko.

Ba zan Burgosen irakasle trebea,  
Temiño abizenez,  
harekin ta haren menpe  
Barinagakoa.  
Egokia giltza, Lauzirikaren serrailarako.  
Geroago  
Temiño jauna  
Orenseko gotzaina.


Eleiz-jakituriz hornidua,  
munduko azturaz ohitua,  
Bergaran egin eban Arizmendik

azterketa jokoia,  
joko garbia  
artillero baketsuak erasoa  
ta menpera apur apurka  
teologia totoloa.


Gerratea amaitu zan,  
azalez behintzat,  
kortse estuko bakea  
gerra ondareztat.

Azkenengo saioa Gasteizen:  
1940 urte azkenetan abade jaioa,  
hurrengo Urtebarri egunez  
Barinagako eleizan  
Mezabarri apala  
baina guztizkoa:  
Arizmendi abade barri,  
Lasuen ta Gandeaga alboetan,  
bost gazte azkar koroan kantaketan,  
meza ta gabon kantea  
ta Te Deumaren oihartzun betea.









*Aste Saindua Arrasaten.*



## XI. Abade, eta Arrasaten

**A**paiza soilik barik gizartekaria,  
asmo horrez ganezka don Jose Maria;  
kanpoan ikasteko ames eretia,  
obispuak bestera kezka setatia.

Arrasaten izango koajutoretza,  
Arizmendik apalik meneko baietza;  
parrokoa be barri barria damotsa,  
aukeraketa bitxi eta ulerkatxa.

Ez egoan orduan Lovaina gertuan,  
ames politak baina huts, basamortuan,  
eskaria sakonduz egin erreguan,  
Lauzirika barriz, be, berean egoan.

Meza barria kanta ta handik bost astera  
maletatxua gertu eta... Arrasatera.  
Lehenetan, barritan, baserri aldera,  
orain apaiz gaztea industri betera.

Barinaga girorik ez zan Arrasaten,  
uri indar haundikoan barrukara kemen;  
aurreko urteetan eztabaidak gailen,  
eginbehar gaxetan Arizmendi sartzen.

Mahasti barrian ez mahasti gizonik,  
galsoro haundia ta ez itaizalerik;  
ba zan bai bazterretan gerrate zauririk;  
galtzaileak galduta, ta besteak pozik.

Arrasate herri martzal itzelak jasana,  
abade gazteentzat ezin han lur ona;  
gizonen bihotzetan gerrate orbana,  
min hartuak betiro amurru ordaina.

Zer ekarren abade barriak herrira?  
Zeru goitiko berbak premina gorira;  
larregikeri asko zuzen aitzakira  
berrogetahiru hilak; hiru apaiz ziran.

Koajutore batek sermoi latz samarrak,  
beste batek hitzaldi bakegazaberak,  
baina honi deutsoez gertatu maletak.  
Arizmendik zelanik egingo berbetak?

Jaungoikoa, Herria, burujaubeduna,  
gizona danen ganez zaindu behar dana;  
bikoizkeriak begoz, bakotxaren lana  
aintzat hartzea, beraz, jardunaren gana.

Heldu zan Arizmendi, heldu zan Iñarra;  
Iturbeko mutilak hauspean txingarra;  
hitzaldi izugarriak entzuteko garra,  
lorakerien orde z gona ta giarra.

Kristinauek domekan eleizan uneak,  
jakintzaz zaletuak, gertu entzumenak;  
hitzaldi soinuetsurik ez apaiz azkenak,  
apainkeririk bako egia ozenak.



“Gizona gizartean lehengo eredu  
zuzenaren bidean egingo erregu,  
zerurako bideak lurrean dau leku,  
bederatziurrenik aski ta lar dogu...”


Sermogintzaz bereizi idazle be ba zan,  
errazoiak, ekina, ipinteko martxan;  
aldaketak ugari izaten bizitzan,  
aldatzerik ez balitz, pistiaren gisan.

Zer ete da bizitza, harremona ezik?  
Ba, hortik gorakoa arean huts hutsik.  
Izpiritua eta gorputza ataldurik  
batasunaren aurka hasi, gura barik.

Eskolastika... nahiko nahastaua eukan,  
gogorturiko asmo antzua benetan,  
buruko argi soilaz buruhaustean.  
Sentimenak umeak ditu gizonetan.

Ziltzaldi zoroa zan edonoizko giro,  
mundu ta haragiaren bildurrez betiro  
zuhurtza larregia tontorrera igo...  
Aginteak, nagiak deuskue narrio.







*Don Jose Maria gazteekin, santamas garaian.*



## XII. Gazteria, lana, mailarik bako gizartea

**B**izitzako itsas nahastuan  
gerrate ondoko bake aizun,  
zauri zaharrak ondu beharra  
zeregin mingarria edonun.

Zauriz betea, atsekabez blai,  
halan Arrasate bera ere,  
korapiloak askatuteko  
beharko gizon eta abade.

Horrezaz jabe herri zehea  
itxaropenez zerbaiten galde,  
polikikari zirtzilen aurre  
ekeiz-gizonak zintzo, bestalde.

Nundik edo handik jo behar, ta  
Arizmendik gazteak begiko,  
mundu ta eleiza usainetan  
jardun ekintza katoliko.

Bota gazteak ikasketara,  
argitasuna apurka emon,  
berezkoari astinaldia,  
papaok lez inoiz ez egon.

Bizitzearen guna, ekina;  
gogortasunak ezer ez dakar;  
abere soilak senez dihardu,  
baina gizona ez daite bakar.

Gizonak azala dauka baina,  
han barruan ditu aginduak,  
agindu honeek beteteko  
ezarian lagundu zeruak.

Barri horixe landu beharra  
eskuetako lanaz batean,  
bere bide arteza aurkitzeko  
zentzunez jardun alkar-lanean.

Bakarrekoa ez bedi izan  
gizonaren lana uneoro,  
alkarregana doan bidea  
maitatzen ikasi egunero.

Baina munduko giltzetarik bat  
txit preminazko Arrasaten be,  
txanponen batzuk nundik lortuko:  
zozketa, erlo, kaleko eske.

Eginik egoana jateko  
Arizmendi han ez zan agertu;  
iraunzalea ez zan nahikoa,  
bai barritzaile argi ta prestu.

Zerrajerako Ikasle Eskola  
Arizmendik han begiz jo eban,  
eleizako sermoien gehigarri  
ikasleei arauak berresan.



Arau barriak, asmo zehatzen  
ondorio lez sorturikoak,  
gazteen adimen birginetan  
emongo frutu gozo hezoak.

Hain apalkiro batzen ebezan  
txanpon zuhurrak eurak gorderik,  
diru jabetzan arduraz jardun,  
ez eben behar sakristiarik.

Arizmendi, sermogile baino  
idazle trebe zan areago,  
“Surge” ta “Ekis” ta “Aleluya”  
haren paperak, eta “T.U.” gero.

Esaldi trinko, berbeta mardo,  
ilun samarrean argi zorrotz,  
okerkeriarik bako leiho  
esangurako irudi beroz.

Aldizkariko artezkari  
izatea ukatu eutsoen...  
Kazetaria izan zalako  
gerratean auzipetu eben.

Arizmendik orduan agertu  
euskal periodistaren karneta  
—beste batzuek bildurrez erre—  
Jose Marik erpizi, gordeta.


Horrelan jardun eban idazten  
ta artezkari bakarra izaten,  
hainbat urtetan ta paperetan  
asmo barriak batasun baten.

Kooperatiba ez da doktrina,  
ez asmo barri, ez zorrozketak;  
azturazkoa, giza ekintza  
giro ondasun ta praxisketa.

Gizonaren aldia zetara?  
Arizmendik bideak bilatzen,  
ahalmena ugaltzeko modua  
jakiteak oparo emoten.

Jakite hori ernatu guran  
abadea ez da uzkurtuko,  
herriarentzat beste Eskola bat  
laguntza urriz eban lortuko.









*Gazteen formakuntza, bere kezkarik handiena.*



## XIII. Jakitura, gizarteko

Jakiteak dau indarra  
ala indarrak jakitea?  
Ezjakinaren dotea  
menpetasun ta beharra.

Bitartekoa da maixu,  
beste asko losorroan,  
hark ekarri, hark eroan,  
zeinek daki neurri, kaizu?

Abadearen arloak  
zerbitzua dau barruan,  
gizon gizarte-eremuan  
gizon argi ta osoak.

Horretarako sortua  
Ikasle Eskola ondoren  
Politekniko jardunen  
ikasgiro txit lortua.

Horretaraxe Biteri  
Eskolea barriro be  
askezale eta progre  
etorkizunari aldi.

Horrek, ostera, nekea  
ta diru-eskea eukan,  
industri gizonen bizkar,  
barriz, diru-emotea.

Etorkizunean, trebe  
diran gizonak beharko;  
lehiaketaz doa aro,  
erdimerdi gelditzeke.

Arizmendiren ekina  
batzuentzat bai mingotsa!  
Gazteak betoz gorantza:  
dirua ondo ereina.

“Adimenak argi jarten  
eralgizue dirua,  
hori ez da, ba, gastua;  
hortik ondasunak sortzen”

Buru argia nagusi  
artalde artzain bailitzan,  
ta argi horri nagusitzan  
ahaltzu irauarazi.

“Herri jendea artalde  
betiro izan ez dadin,  
ikasi, jardun, eragin...”  
horra Arizmendi irakasle.

Jakitura tronutik  
behar da, gozo, eratsi;  
gizarteari iratzi  
jakitura barrutik.



Jakintsu dan gizartea  
behar dogu gure herrian,  
gizagintza lantegian  
landu, gizonen semea.

Semea eta alabea  
ez alendu ez bakartu,  
gizarte eduan alkartu;  
hortik mundu-barritzea.


Betoz aukerak zelaira  
gertakuntza ondorean,  
gogotsu auzolanean  
gizartea aro barrira.


Arrasaten lan ta ikasi,  
azterketak Zaragozan,  
hasibarritan halan zan,  
albokoaz ez-bereizi.

“COU-eko ikasletxoak  
gizajo handiak dira,  
liburuei soil begira,  
ete dira mundukoak?”

Ogia irabaztea  
baina zerurik galtzeke,  
asmoen asmo daiteke:  
gizartea aurreratzea.








*Arrasateko Udaletxean. Erakundeen eskerrontasuna iristen da.*



## XIV. Legeen nagitasuna. Arerioak

 izon guztien eskubidea  
nunbait be, berba egitea,  
horrexegaitik berbagile da  
gizon guztien izatea.

Ta berbetan alkarren artean  
jardutea da egoki,  
gizonak gizona aintzat hartu,  
mundua maitez erabili.

Alkarrizketarik ez, ostera,  
harroak bere jardunean;  
makalek itxaropena biztu  
ta ez lo egon joanean.

“Lurrin gozoaren antzekoa;  
gizonaren bizitza motza,  
lurrin horixe galdu ez dadin  
nire ardura zehatza.

Dagoena dagoenean  
ezin danginoan laga,  
erizmen zorrotzaren preminaz  
arduratuko ez gara?”

Izatasunaren teologi  
itxurak urratu zituen:  
herrikoaren kide, herrikoa,  
guztien ames haundi baten.

“Aleccop” be, sortu beharrak  
bere garaian sortu eban,  
ikaslea eta langilea  
pertsona bakar ta batengan.

Kooperatiba legearen  
giroan ez zan halakorik,  
lege erdoilduen nagiak eban  
orio barri preminarik.

Ahal izateak eskatzen dau  
moduetan jakitea;  
jakitea da geroko bide,  
ekintza onaren atea.

Jakin, ostera, gitxi batzuek  
jakitea ez da egoki,  
langile talde izugarria  
ezjakin ezin leite euki.

Ikasi eta beti ikasten  
mundu barriko beharrizan,  
gaztetakoa ez da nahiko,  
bultzatu mundua martxan.

Buruzagitzan taldetxu batzuk  
jardutea amaitzen doa,  
gizon argituak ugaltzea  
noraezeko arazoa.



Tresna makinak makaltzen dira,  
makaltzen dira gizakiak,  
urte-sail pean gizonak galtzen  
lehen izaniko graziak.

Garapena ez da soil ez bakar,  
bai jarraiko ta gizarteko;  
jakituria, lana, dirua...  
buztarrietaz askatzeko.

Gitxieneko mailaz ganetik  
gizon arduratuen lana,  
lo egon barik, zoli ta adi  
ekonomi sistimakana.

Gazteriarentzat lanbidea  
egokiago gertu gura,  
urteetan langile izan danaz  
gizarteak behar ardura.

Jakituria ta askatasuna  
indartu gura Arizmendik,  
askatasunaren etsai finak  
etsai izango goi aldetik.

Hasarrezko oporraldiak laster  
sortu ziran, han, hor ta hemen;  
abadea iraultzaile etsita  
goikoek ez nahi Arrasaten.

Erbesteratu gura izan eben  
Arizmendi zuzenzalea,  
han Donostian barrero ikusi  
Garikanoren itxurea.


Atzerriratze asmo biorra  
indartzeko ebiltzanean  
opor gogorragoen bildurra  
susmatu eben barrenean.

Jendea haserre, jagiteko prest  
Deba Garai inguruetan,  
desterratuko eben apaiza...  
etxerako mailadietan.

Garikanoren jagite, jauste,  
gizontxu baten esanera;  
behinola Madrilen Arizmendi  
Goñik, umil, agurtu gura.

Zuzeneko bideari jarrai  
Iturbeko gizon jatorra,  
hainbestek ezin erakutsiko  
halako bititza hain aitorra.










*Gizakia gizartean. Don Jose Maria umekin.*



---

## XV. Gizona ta auzolana

---

**B**aserri girokoa  
nunbait auzolana  
maitasuna dakarren  
eragin bakana,  
nagusi eta morroi  
biok erdibana,  
lan-sistema zaharra  
orain barri dana.

Alkarregaz lan egin  
askatasunean,  
kooperatibeak  
horixe gunean,  
dana erdimailan ta  
inor ez behean,  
ta Arizmendik aurkitu  
bidea urrean.

Lana gizonak lagun  
aspaldietatik,  
haizea edanda ez  
inork biziterik,  
neguan bero eske,  
udan ez da hotzik,  
inork ez dau iraungo  
jan eta edan barik.

Ogia, janaria,  
abere eta lur...  
gizonak laguntzaile  
asmoz daikez bihur,  
geroago lan tresnak  
adar eta egur,  
burdinea bezauta  
bartzarrera hazur.

Lana eta gizona  
alkartu daitezcan  
gogortasun nekea  
ez bedi beti izan;  
tresnak onduz ta gaituz  
makinen peskizan  
gizonaren argiak  
jo ta ke ekintzan.

Gizona ez bedi gerta  
makinaren jopu  
ez eta diruaren  
menpeko istripu,  
lanak alkartasuna  
eginez eredu;  
auzolana horixe  
besterik ez dogu.




Arrasaten sortuak  
kooperatibak  
Arizmendiren seme  
emonkor, sotilak;  
inguruetarantza  
doakoz distirak,  
lanaren laguntzaile  
txanpon biribilak.

Txanpon horren preminaz  
kooperatibak;  
inori eske, zetan  
ibili, mutilak?  
Hortxe be, auzolanak  
behar eraginak,  
Lan Kide Aurrezkia  
sortu dau haurminak.

Bizikleta zaharra...  
ez dauka besterik,  
nundik ete jatorko  
dirua sorturik?  
Langileak dirua  
apurka gorderik  
Diruetxe ziuorra  
betor aurrezkitik.

Europako Merkatu  
urrun egoana  
Arizmendik begien  
aurrean eukana;  
Lan Kide Aurrezkia  
asmo ta jorana,  
kooperatiba arlo  
oso nahi ebana.







*Bere hileta egunean. Herriaren agurra.  
Azkenengo egoitzara bidean.*



## XVI. Atsedena, Parusian

Takintzak askatuko zaitu, ta  
jakintza horrexen bila  
ipini nahi eban gizartea,  
gizona buru zedila;  
gorabeherak menperatzeko  
adimen argi ta abila,  
lana beti be, preminazkoa  
baina ez ardura soila.

Amak etxean bere tronua  
hori aspaldiko lege,  
orain tokia egokitzen da  
lau hormetaz kanpo ere;  
Arizmendiren buruan bizi  
auzolagun ta lanbide,  
gizartekoa gizona, eta  
gizartekoa emakume.

Gazteak eta adinekoak  
lan arloan jendeketa,  
gizon eta andra zaharragoek  
lehenago eben beta,  
aukera onez laguntasuna  
ondo merezi dabe ta,  
begoz gizarteko txera artean,  
ez esker txarrez erreta.

Lanaren betegarri atsegin  
lurrataltxoa lortzea,  
lurratalaren erdinguruan

aske eta argi, etxea;  
kee ta lorrin barik biziten  
barri antzera ikastea,  
zeinen atsegin dan guztientzat  
ume barria haztea.

Gizona zelakoa ete dan  
garbi dagoen zera da,  
zirikaldiak eta obenak  
indartsu baina indarga;  
horreek zehatz aldentuteko  
gizona bera hil behar da,  
hori ez dago gure eskueran,  
hori Jaunarentzat laga.

Dirudomua ta landomua  
eta buruzagi domu,  
dirua ondo erabilteko  
ba da aholku ta onu:  
“jardun eta ez irabazi;  
sortu, ez eukitsu gertu;  
aurrezkitzari ekinarren be,  
inortxo ez menperatu.”

Lanaren bidez gizasemeak  
bere ahalmenak goratzen  
eta holantxe jardun betean  
egokiro da gizontzen,  
osotasunerantz doa beti  
ta hortxe izango azken,



ta dituen premina guztiei  
erantzun ona eskeintzen.

Bizigogo ez bedi zimel  
zahartzaro atadian,  
mailarik bako gizarte horretan  
ez, arren, inor ilundian;  
bakotxak berak eskubidea  
aldi barriko harian,  
beste inorgaitik ez beste inor  
bazterturik hil-zorian.

Osasuna ez izan betiko.  
Bihotza txit nekatua:  
Arizmendik egun ta eguzki  
arazo ez aitatua.  
Jaunaren otsein gizon-altaran  
buru, bihotz ta eskua:  
“orain atzera begiratzea...  
Jaunari iraina...  
pekatua...”

Jakintzak dakar askatasuna  
jakituna dan herrian,  
jakintza gizarteko ondorenak  
tronua demokrazian.

Neke jardunen mordo handiez  
aparteko irabazian,

“ekin degiogun nekeari;  
atsedena... Parusian.”



---

---

Fotomecánica  
IGARA, S. A.

---

Fotocomposición  
RALI

---

Impresión  
LIT. DANONA, S. Coop.

---

Diseño y Coordinación  
CONSEJO GENERAL

---

Depósito legal  
SS. 860-90

---

---




**LABAYRU-IKASTEGIA**

**BIBLIOTEKA - DERIO**

Sarr 27.126/95

Gaia.

Tokia.



**Eusebio Erkiaga**

---

Lekeition jaiotako, 1912 irailaren 4an. Etxean eta ka-  
lean ikasi eban euskera. Eskolan, gaztelania.

Hamazortzi urtekoa zala hasi zan euskeraz idazten,  
orain hirurogei urte: uriko albistak, olerkiak, artiku-  
lu laburrak, **Euzkadi** egunerokoan, **Ekin** eta **Yakintza**  
aldizkarietan. 1937 urtearen hasieran **Eguna** euskal-  
egunkariko kazetarietarik bat izan zan, bost hilabete  
ta erdian.

Gerrate ostean **Euzko-Gogoa**, **Egan**, **Anaitasuna**, **Idatz**  
& **Mintz**, **Olerti** eta abarretan agertu izan dira bere la-  
nak. Bai hizneurtuz bai prosaz (elebarri, teatro) sariak  
lortu ditu.

Egin eta argitaratu dituan liburuak, nobelak: **Arrane-  
gi** 1958, **Araibar Zalduna** 1962, **Batetik bestera** 1962,  
**Jaioko dira** 1984, **Txurio Txoria** 1986 eta **Irribarrea**  
galtzen danean 1987.

Aipaturiko liburuetarik batzuk birritan ere argitara-  
tuak izan dira, eta prosa landu horretan ere, lirika iku-  
tua nabari dala esan daroe irizleek.

Oraintsu "Lauaxeta"ren opaz atal biko poema egin  
dau, eta ganera, Jose Maria Arizmendiarieta bere  
adiskide haundiaren gomutan eta goran, eskuetan dau-  
kazun poema epiko-didaktiko hau, **Gizonaren aldia**.

Erkiaga Euskaltzain osoa da 1963 g. urtetik eta La-  
bayru Ikastegiko Deduzko Kide.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 1988eko Euskal Le-  
tretako Merezimenduzko Saria emon eutsan, bere bi-  
zitzako euskal lan guztiak **Opera Omnia** aintzat hartuz.



**IKASBIDE**

Obra Social de  
CAJA LABORAL POPULAR



**GRUPO COOPERATIVO MONDRAGON**